

# «Koherentzia demokratikoa» eskatu die Otegi EAJ, EA eta Ezker Batuari

Eusko Legegiltzarrak ez dio helegiterik aurkeztuko Alderdien Legeari, Jaurlaritzako hirukoaren ekimena ez baita aurrera atera

Edurne Begiristain | GASTEIZ

Aurreikusita zegoen legez, Eusko Legebiltzarrak ez dio inkonstituzionaltasun helegiterik aurkeztuko Alderdien Legeari. EAJ, EA eta Ezker Batuaren ekimenak ez baitu babes nahikorik lortu aurrera ateratzeko, Sozialista Abertzaleak taldeak, PPK eta PSE-EEK kontra bozkatu baitzuten atzo, Herrizaingo eta Erakunde Batzordean egindako bileran. Ekimenaren eztabaida sutua izan zen oso, eta kritika gogorrenak Sozialista Abertzaleen eta Jaurlaritzaren artekoak izan ziren.

Alderdien Legearen kontrako argudio juridikoak erabili zituzten Jaurlaritzako alderdiek helegitea jartzearen beharra defendatzerakoan. Legearen hainbat artikulua Espainiako Konstituzioaren kontrakoak dira adierazi zuen Jose Antonio Rubalkaba EAJko ordezkariek, eta helegitea, EAJk lege horrekiko hasieratik erakutsi duen jarrierarekiko «koherentziagatik» aurkeztu nahi zutela esan zuen. EAK eta EB-IUK, berriz, legeak oinarritzeko eskubideak urratzen dituela nabarmendu zuten.

Mahai gainean jarri beharreko eztabaidak juridikoa baino politikoa izan behar duela azpimarratu zuen, oster, Arnaldo Otegi Sozialista Abertzaleetako kideak. EAJ, EA eta EB-IURI leporatu zuten «salbuespen egotz» mintzatzea eta aldi berean Espainiako legea «behar bezala betetzea». Horregatik, «koherentzia demokratikoa» izateko galdegin zuten hiru alderdiei, eta «bidezkoa ez den legea ez betetzea» eskatu. Ildo horretan EAJ, EA eta EB-IURI egotzi zuten Espainian dauden «espainolik hoberenak» izatea eta Euskal Herrian albuespen egoera ezartzearen ardura leporatu zuten. Helegitea, «burua zurtzeko» erabili izana ere kritikatu zuten.

Rafael Larreina EAKo ordezkariek Otegiaren kritikak arbuiaitu zituen, eta argi utzi zuen EA ez dagoela ez Batasunarekin ezta Espainiarekin ere, «askatasunekin baizik». Anton Karrera EB-IUKo legebiltzarkideak, berriz, ETARI indarkeria eteteko eskatzeko dei egin zuten Sozialista Abertzaleei. PPRi eta PSE-EEri zuzendutako kritikak ere egon ziren. Alderdien Legeari

«kotoiaren proba» egiteari «bel-dur» izatea egotzi zuten EAJk bi alderdiei. PPK eta PSE-EEK hitz gogorak erabili zituzten alderdi abertzaleen aurka. Bi alderdi

espainolistak bat etorri ziren Alderdien Legea «konstituzionala eta egokia» zela esaterakoan. Carlos Urkijo popularrak Batasuna babestea egotzi zuten EAJri

eta EARI: «Zuek odolaren deia sentitzen duzue, babestu nahi dituzue, zuentzat, terroristak abertzaleak direlako».

Boto bila dabiltzala esan zuten Rodolfo Ares sozialistak EAJ eta EARI eta «ETA-Batasuna garaitzea» baino, haiekin negoziatzea eta elkarrizketa nahi izatea salatu zuten.



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

Carlos Urkijo, Jose Antonio Rubalkaba eta Javier Balza, atzo batzorde parlamentarioan.

## Naziak, faxistak eta Francoren oinordekoak

TENTISIO UNEAK. Carlos Urkijo popularrak irainak erabili zituen atzoko eztabaidan

E.B. | GASTEIZ

Azken gertaerek Euskal Herriko gizartearen sortu duten tentsio egotzarak isla izan zuten atzo Eusko Legebiltzarreko eztabaidan. Urduritasuna eta haserrearen adierazi zuten eztabaida hasi zenetik Carlos Urkijo popularrak. Otegiaren alderdiaren kontrako irainak erabili zituzten hasi zen giroa berotzen.

Batasuna «XXI. mendeko alderdi nazia eta faxista» dela eta «garbiketa ideologikoa eta hilketak» praktikatzeko dituela adierazi zuen Urkijok eta Gorka Knörrr batzordeko presidentek irainik ez erabiltzeko ohartarazi zion.

Popularrak Francoren oinordekoak direla erantzun zion Otegi, eta beti «aurrean izango dituztela» gaineratu zuten. Urkijok, berriz, zera

erantzun zion: «Zuek gure aurrean egoteak ez nau arduratzeko, bai ordea atzean egoteak. Faxista eta nazi batzuk zaretelako». Otegi eta Urkijok «faxista» deitu zioten elkarri, Knörrrek isilarazi zituen arte.

Bigarren ika-mika sutsuak ere Urkijo izan zuten protagonista nagusi. Alderdien Legeari buruzko eztabaidaren ostean, Herrizaingo sailburu Javier Balzak batzorde berean

egindako agerraldian PPko kideak gai-ordenatik at zegoen galdera bat egin nahi zion Balzari, baina batzordeko presidentek gaiari heltzeko ohartarazi zion behin baino gehiagotan. Urkijok, ordea, bere horretan jarraitu zuen, Rubalkabak hitza kendu zion arte. Eserlekutik altxatu eta aretoa haserre utzi zuten popularrak. Otegiaren alboan igarotzean, irainak entzun ziren atzera.

J. A. RUBALKABA

(EAJko legebiltzarkidea)

«PPk eta PSE-EEK beldur diote Alderdien Legeari kotoiaren proba egiteari, alegia, helegitea aurkezteari»

ARNALDO OTEGI

(Sozialista Abertzaleetako legebiltzarkidea)

«EAJ, EA eta EB-IU espainol hoberenak dira, albuespen egoera ezartzearen ardura baitaude»

RAFAEL LARREINA

(Eusko Alkartasunako legebiltzarkidea)

«EA ez dago ez Batasunaren alde, ezta Espainiaren alde ere; askatasunaren alde baizik»

CARLOS URKIJOK

(PPko legebiltzarkidea)

«EAJk eta EAK odolaren deia sentitzen dute, beraiatzat terroristak abertzaleak direlako»

**maizpide**  
I A Z K A O

**02 / 03 IKASTURTEA**

IKASTAROK URTE OSOAN

- BARNETEGIAN: Egunean 6 klase eta ekintza osagarriak

FAMILIA EUSKALDUNETAN EGOTEKO AUKERA

- BESTE BATZUK:
  - 2 ordu egunean.
  - 4 ordu astean (larunbatetan)
  - ikastaro berezituak
  - BAKARKAKO IKASTAROK

MAILA GUZTIAK HABEren diru-laguntza DEITU ETA EMAN IZENA

Tel. 943 889231 - Faxe 943 889232 - lazkao@maizpide.com

**Tradebi**  
EB Traducciones Itzulpenak SL

**ITZULPENETAN ZURE AUKERA**

Hizkuntz guztiak  
Teknikoa  
Legala  
Zinpekoa  
Presazkoa  
Kalitatea ziurtatua

T 94 447 41 15 - F 94 447 13 87 - Email tradebi@sarenet.es